GIZARTERATZEKO LAGUNTZA DUTEN ETXEBIZITZAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. Hemen informazio osoa.

Norentzat

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **bazterketa egoeran eta gabezia psikosozialetan daudenak**.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterketaren balorazioa.
18 urte edo gehiago.
Errolda **(6 hilabete)**.

Zertan datza?

Tutoretzapeko etxebizitzak dira, eta, testuinguru komunitarioan ostatu emateaz gain, beharrezko laguntza ere eskaintzen dute, erabiltzaileek pixkanaka bizitza normalizatua izan dezaten komunitatean (2.4.5 fitxa).Egonaldia gizarteratzeko ibilbide bat betetzera baldintzatuta dago.Etxebizitza horiek erabiltzaileen trebetasun pertsonalak hobetzera bideratutako laguntza eskaintzen da: informazioa, jarraipena, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, laguntza psikosoziala, prestakuntza-jarduerak... Intentsitate ertaineko osasun-laguntza, otordu-zerbitzuak, ikuztegia, garbiketa eta zaintza ere barne har ditzakete.

Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **gabezia psikosozialak dituzten bazterketa-egoeran daudena**k, bai eta beren kargura dituzten adingabeak eta tutoretzapean dituzten edo, tutoretzapean egon gabe, arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden eta eskatzailearekin bizi ohi diren helduak ere.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Aurreko 6 hilabeteetan **EAEn erroldatuta egotea**.

Intentsitate ertaineko laguntza behar izatea.

Gizarteratze-ibilbide baterako **konpromisoa hartzea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Araban
- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Bizkaian
- Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Gipuzkoan

Kontsultatu informazio osoa